



Usurbilgo Udala

2021EKO UZTAILAREN 20AN EGINDAKO EZOHIKO UDALBATZAREN BILKURAKO AKTA

BERTARATUAK

Alkate-Lehendakaria

Agurtzane Solaberrieta Mesa

Zinegotziak

Lur Etxeberria Gurrutxaga
Ainhoa Arrozpide Landa
Luken Arkarazo Silva
Oskar Santamaria Pikabea
Itziar Basterrika Unanue
Josune Urkola Larrarte
Mirari Azurmendi Sorazu
Carlos Pérez Fraisoli
Francisco José (Patxi) Suárez Pérez

Idazkaria: Garazi Etxeberria San Miguel (3. puntuan Garazi Etxeberria San Miguelek ez du parte hartu, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko 40/2015 Legeko 23. artikulua baitan eta Olatz de Miguel Arnaiz izan da idazkaria)

Kontuhartzailea: Xabier Olano Jauregi.

Ez dira bertaratu: Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Joxe Mari Iribar Zapirain eta Andoni Atxega San Sebastian.

Arratsaldeko 18:00etan batzarrari hasiera eman zaio.

Usurbilen, 2021eko uztailaren 20an arratsaldeko 18:00etan, Udaletxeko Pleno Aretoan, Usurbilgo Udaleko ezohiko Udalbatza Plenoa egiteko goian adierazten direnak lehen deialdian bildu dira.

Bertaratuak bezala goian agertzen diren zinegotziak batzarkide direlarik, Agurtzane Solaberrieta Mesa izan da Batzarburua.

Alkateak adierazi du Oskar Santamaria zinegotziak lan kontuak direla-eta lehenago atera beharra daukala eta gai-zerrendako zortzigarren eta hamargarren puntuek gehiago osoz onartzea eskatzen dutenez, gai-ordena aldatu egingo duela. Era berean, hamaikagarren puntuan Garazi Etxeberriaren ordean Olatz de Miguel izango denez udalbatzako idazkaria aipatutako puntua ere lehenago tratatuko dutela esan du, soldata igoeraren puntuarekin batera.



Usurbilgo Udala

1.- HAAS-ETAKO A-96 (PORTALMUSU) ETA A-97 (KOMENTUA) EREMUEN HIRIGINTZA ERAIKIGARRITASUNA HAUNDITZEKO ARAU SUBSIDIARIOEN ALDAKETA PUNTUALARI HASIERA EMATEA.

Alkateak esan du gai hau Hirigintza batzordean landu zutela eta bertan diktaminatu zutela.

Jarraian azapenak eman ditu.

Hirigintzari dagokion gaian zuzenean sartu aurretik, kontestu sozialari erreparatu nahi izan dio alkateak, hain zuzen ere, kontestu sozialak eramaten dituztelako hirigintza arloari dagokion erabaki hau hartzera.

Jarraitu du esanez gaur egun zaintza ereduaren inguruko gizarte eztabaida zabal-zabalik dagoela. Covidak eta handik eratorritako osasun krisiak krisi asko azaleratu dituela eta tartean zaintza krisia, gainera azaleratu ez ezik gai hau heltzeko premia eta urgentzia azkartu egin duela esan du. Izan ere covidak, besteak beste, azaleratu duela dio dena gelditu zen garai hartan zaintza izan zela gelditu ezin izan zuen hori, zaintza dela gu guztion bizitza sostengatzeko beharrezkoa dugun hori eta covidak gainera modu kupidagabeen erasan diela adineko pertsoneri, zahar egoitzak ikusi ditugula dio zein gogor kolpatu dituen eta gaur egun indarrean daukagun eredu instituzional honen ondorioz nola adinekoak isolatu behar izan ditugun covidarengandik babesteko. XXI. mendeko gizarte honek duen erronka nagusienetariko bat zaintza dela azpimarratu du eta urgentea dela zaintza publiko, komunitario eta berdin baterako bidea transitatzen hastea edo bide hori egiten hastea.

Matia Fundazioak berak iraupen luzea daramala dio zainketen inguruan ausnartzen, nolabait nola antolatzen dugun zaintza sistema bat pertsona bera eta pertsona beraren nahiak erdigunean jarriko dituen, nola osatzen dugun pertsonaren nahiarekin bat datorren arreta eredu bat eta nola gainera denboran jasagarria izango dena.

Adineko pertsoneri galdetzen diegunean non zainduak izan nahi duten, denek adierazten dutela dio etxean zainduak izan nahi dutela. Beraz, nahi horri bide eman behar badio administrazio publikoak ezinbestean eskatzen digula esan du zaintza antolatzea bere etxean eta hori posible ez denean, bere etxetik atera behar duenean zaintza hori etxean bezala izan dadila. Gaineratu du justu hori dela zaintza eredu berri honetan premisa nagusia eta hori dela Matia Kalezarren eraikitzen ari den zentrotik martxan jarriko den arreta eredu berri bat. Horregatik askotan esaten dugula dio zentru hau badela alderdi sozialetik zein urbanistikoki ere zentro berritzaile eta aintzindari bat.

Zentro horren harira aurreko legealdian hasi zirela esan du bi erakunderen artean bazegoela konpromiso bat, borondate bat zentro horretaz haratago eta ikusita Usurbilek zer nolako baldintzak dituen zaintzen ekosistema bat sortzeko eta eraikitzeko. Horri bide emateko hasieratik garbi eduki zutela dio eraikuntza horrek kolektiboa izan behar zuela eta kolektiboa izateko parte-hartze batean oinarritua izan behar zuela, batez ere, elkarlanaren fruitu izan behar zuela eta horrela eman zitzaiola forma dio prozesu horri. Prozesu hori martxan dagoela esan du, hiruzpalau bilera egin dituztela eta jada ikusten ari direla dio eta azalaratzen ari direla dio dependentzia beharrak geroz eta anitzagoak eta ugariagoak direla, eta behar berri horiei erantzuteko modu eta zerbitzu berriak ere behar dituztela.



Usurbilgo Udala

Jarraian, Lugaritzen jarriko dituzten bizi osorako alojamenduei buruzko informazioa eman du. Hau baliabide berri bat dela dio gaur egungo gizarte zerbitzuen legean aurreikusten ez dena baina Diputazioarekin etengabeko harremanean daudela dio eta etorkizuneko legean jasoko dela azpimarratu du; nolabait gaur egungo etxebizitza tutelatuen baliabidea ordezkatzera datorren zerbitzu edo alojamendu bat dela adierazi du. Alojamen du hauek pentsatuta daudela dio batez ere bizikidetzaren unitateentzako non unitate horretako batek daukan menpekotasun edo zaintza behar bat eta besteak ez. Hori horrela bizikidetzaren unitate horiek bizitza osorako alojamendu horietara doaz eta zaintza edo prestazioak jasotzeko aukera dute.

Aukera ikusi dutela dio Matia Kalezarren eraikitzen ari den zentro horretan ere badaudela hutsik edo erabilerarik gabe geratu diren espazio batzuk mota honetako etxebizitzak egiteko.

Espazio horiei erabilera berri bat eman ahal izateko eraikigarritasuna handitu beharra dagoela esan du, gaur egungo fitxaren arabera Matiak agortuta daukalako eraikigarritasuna. Beraien ustez proiektuaren izaera soziala ikusita, etorkizun batean ze aukerak egon daitezkeen ikusita, gainera lantzen ari direla dio alojamen du horietan usurbildarrek lehenatasuna izatea, horrelako arau bat aldatzeko ezinbestekoa den interes orokorra justifikatuta geratzen dela uste dute.

Gaur pleno honetan onartzera doazena espedienteari hasiera ematea dela zehaztu du.

Batzarkideek, Hirigintza batzordearen irizpena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:

“Esp. Zenbakia: HZ.01/2021-0263

AURREKARIAK

Usurbilgo udalerrian hiri antolamenduko plangintza orokorra jasotzen duen dokumentua osatzen du Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioen Berrikuspenaren Testu Bateginak. Berau 2013ko otsailean idatzia eta urte bereko maiatzaren 28ko osoko bilkuran onartua izan zen; 2013ko uztailaren 22ko Foru Agindu bidez argitaratzea adostu zelarik (GAO 172. zbkia. 2013-ko irailaren 10ekoa).

Bertan zehazten dira, besteak beste, Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-96 (Portalmusu) eta A-97 (Komentua) eremuen hirigintza ezaugarriak.

HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN BEREZIA

Usurbilgo Udaleko Plenoak, 2010eko ekainaren 30ean, zera erabaki zuen: Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-96 (Portalmusu) eta A-97 (Komentua) eremuetako Hiri Antolamenduko Plan Berezia behin betikoz onartzea. Erabaki hau eta Hiri Antolamenduko Plan Bereziaren ordenantza arautzaileak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialeko 131. aldizkari ofizialean argitaratu ziren 2010eko uztailaren 13an.



Usurbilgo Udala

2019ko maiatzaren 23an berriz, Usurbilgo Udaleko Plenoak, Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-96 (Portalmusu) eta A-97 (Komentua) eremuetako Hiri Antolamenduko Plan Bereziaren Aldaketa (2019 maiatza) behin betikoz onartzea erabaki zuen. Erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialeko 101. aldizkari ofizialean argitaratu ziren 2019ko maiatzaren 30ean.

BERRIKUNTZA GUNEA ETA ZAINTZADUN ETXEBIZITZAK

Beharrezko hirigintza-tresnak onartu ondoren, Tokiko Gobernu Batzordeak, 2020ko urtarrilaren 28an, MATIA SERVICIOS SOCIALES SL enpresari, Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-96 (Portalmusu) eta A-97 (Komentua) eremuetako Birpartzelaketa Proiektuko P.1 partzelan berrikuntza-zentroa eta zaintzadun etxebizitzak eraikitzeke udal baimena eman zion. Zuinkea planoan 2020ko uztailaren 24ean izenpetu zen obrei hasieraz emanez.

HIRIGINTZA ERAIKIGARRITASUNA HAUNDITZEA

Orain berriz, 2021eko ekainaren 30ean, MATIA SERVICIOS SOCIALES SL enpresaren ordezkartzan diharduen GERARDO AMUNARRIZ PEREZ jaunak, Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-96 (Portalmusu) eta A-97 (Komentua) eremuetarako Plan Bereziak onartutako hirigintza eraikigarritasuna, gaur egun baimenduta dagoen eraikuntza-bolumenaren barruan (*erdisotoan eta estalkipean*) 1.700 m²/t inguru handitzeko eskaera egin dio Usurbilgo Udalari.

LEGE TXOSTENA

Udal aholkulari juridikoak, ARAUDI S.L.P. taldeko Nekane Azarola Martinez andereak, eskaera aztertu ostean, 2021eko uztailaren 5ean honako txostena eman du:

USURBILGO ARAU SUBSIDIARIOAK A 96 "PORTALMUSU" ETA 97 "KOMENTUA" EREMUEAN ALDATZEKO ESKAERARI BURUZKO TXOSTEN JURIDIKOA

I. SARRERA ETA AURREKARIAK

2004ko irailaren 14ko Diputatuen Kontseiluko akordio bidez onartu ziren Usurbilgo Plangintzako Arau Subsidiarioak, eta 2013ko uztailaren 22ko Foru Agindu bidez Testu Bategina.

Hirigintza dokumentu horretan, bi eremu – fisikoki mugakideak direnak – eratzten dira, A-96 (C/SE) "Portalmusu" y la A-97 (C/SE) "Komentua" izena dutenak.

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 69. artikuluari jarraikiz, Plan Berezi bat izapidetzea sustatu zen, non bi antolamendu-eremu berrantolatzen ziren.



Usurbilgo Udala

2019eko ekainaren 30eko datako udal osoko bilkurak behin betiko izaerarekin onartu zuen A.96/A.97 eremuari dagokion Hiri-antolamenduko Plan Berezia (HAPB).

Bertan zeuden eraikuntzak eraitsi ziren, baina eremuko garapena bertan behera utzi zen.

2019an MATIA FUNDAZIOAK Plan Bereziaren aldaketa eskatu zuen aipaturiko bi eremuak berriz berrantolatzeko, horren helburua izanik sustatzea zentro Gerontologiko erabilerarako ekipamendu pribatu bat eraikitzea, eta lagatzea Usurbilgo Udalari partzela bat ekipamendu publikoarentzat.

Espedientea izapidetu ondoren, 2019ko maiatzaren 23ko osoko bilkuran, Arau Subsidiarioen A-96 (*Portalmusu*) eta A-97 (*Komentua*) eremuen Plan Bereziaren aldaketa behin betiko onartu zen. Akordio hori 2019ko maiatzaren 30eko GAOⁿ argitaratu zen, 30. zenbakian.

Gainerako hirigintza-tresnak onartu ondoren, ekipamendu pribatua eraikitzeko lizentzia eman zen. Gaur egun eraikitzen ari dira.

Ekipamendua eraikitzen ari den aldi berean, gizartearen eta administrazioen artean partaidetza-prozesu bat ireki da Usurbilgo udalerrian zaintzarako ekosistema bat zehazteari dagokionez, eta horrek agerian utzi ditu ekipamenduaren eraikuntza-programak birplanteatzen dituen gizarte-premia batzuk.

Ondorioz, 2021eko ekainaren 30ean (*sarrera-erregistroa: 2021-2268 Zk.*), Gerardo Amunarriz jaunak, "*Matia Servicios Sociales SL*"ren izenean eta hura ordezkatzuz, Usurbilgo Udalari eskatu dio Plangintza Orokorra aldatzeko, eraikigarritasuna 1.700 m²/t inguru handipena onartzeko gaur egun baimenduta dagoen eraikuntza-bolumenaren barruan (*erdisotoan eta estalkipean*).

Eskaerarekin batera, plano batzuk, eraikigarritasuna handitzea eskatzeko justifikazioa eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte politiketako Sailaren laguntza-gutuna aurkeztu dira.

Ondorioz, egindako eskaerari eta Arau Subsidiarioak aldatzeko espediente bat izapidetzeko jarraitu beharreko prozedurari buruzko txosten juridikoa idazten da.

II.- TXOSTEN JURIDIKOA

II.1.- Arau Subsidiarioak aldatzeko espedientea bultzatzeko justifikazioari dagokionez.

2021eko otsailaren 22an egindako txosten tekniko-juridikoan justifikatu zen bezala, Udal-plangintzaren aldaketa zehatz bat bultzatzeak, jabetza



Usurbilgo Udala

privatuko lurzoru batean hirigintza-eraikigarritasuna handitzeko, **interes publikoa** aitortu beharra dakar, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 4. artikuluan ezartzen den bezala.

Aurkeztutako dokumentazioan, eraikigarritasuna handitzeko eskaera honako alderdi hauetan justifikatzen da:

- 1.- Usurbilgo udalerrian zaintzarako ekosistema bat definitzeko jarraitutako partaidetza-prozesuak agerian utzi du Usurbilgo zaintza-programa zabaltzeko eta handitzeko beharra.
- 2.- Beharrak definitzen ditu hiru gunetan: jarduera fisiko prebentibo eta kolektiboetarako erabilera anitzeko gunea, aparkalekuak eta kanpoko zaintzak dituzten bizitokiak eta zentrotik ematen diren zerbitzuak.
- 3.- Usurbilgo zentroa, hasiera-hasieratik, arreta integraleko zentro gisa pentsatuta dago, Usurbilgo udalerraren eta Buruntzaldea eskualdea barne hartzen duen Gipuzkoako ekialdeko sektorearen zerbitzu-eskaintza osatzen duena.
- 4.- Gipuzkoako Foru Aldundiak 499 plazako defizit globala aurreikusten du 2021erako; horietatik 213 Oarsoaldean daude eta 191 Buruntzaldean.

Egindako eskaera indartzeko, Foru Aldundiko Plangintza, Inbertsio eta Prestazio Ekonomikoen zuzendari nagusiak eskutitz bat idatzi du Matia Fundazioak egindako proposamenak indartu eta bermatzeko.

Ondorioz, eta azaldutako guztiagatik, baieztatu dezakegu **behar bezala justifikatzen dela "interes publikoa"** A-96 (Portalmusu) eta A-97 (Komentua) eremuen plangintzako arau subsidiarioak aldatzeko espedientea bultzatzeko.

II.2.- Arau Subsidiarioak aldatzeko espedientea bultzatzeko jarraitu beharreko prozeduraren azterketa juridikoa.

Matia Fundazioak eskatu du ekipamenduaren hirigintza-eraikigarritasuna 1.700 m² (t) inguru handitzeko.

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 53.2.c) artikulua aplikatuz, hirigintza-eraikigarritasuna egiturazko hirigintza-zehaztapen bat da, eta, beraz, plangintza orokorrean jaso beharko da. Ondorioz, Usurbilgo planeamenduko arau subsidiarioak aldatu behar dira.

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 104. artikulua xedatzen duenez, hirigintza-zehaztapenak berrikusteko eta aldatzeko espedienteak izapidetzeko, **haiek onartzeko jarraitutako prozedura bera bete beharko da.**



Usurbilgo Udala

Plan Orokorrak izapidetzea eta onartzea aipatutako legezko xedapenaren 90. artikuluan eta hurrengoetan arautzen da, eta nabarmentzekoa da Plan Orokorra egitea Udalari dagokiola, eta hura egiten hastea erabaki behar dela.

Artikulu horren 1. zenbakian honako hau ezartzen da:

*“1.- Udalari dagokio plan orokorra egitea. Egitea erabakitzen denean, informazioa **eskatuko zaie** Eusko Jaurlaritzan eta dagokion foru-aldundian babes zibilaren, ingurumenaren, kultura-ondarearen eta naturguneen alorreko eskumenak dituzten organoei, arriskuen berri izateko eta ingurumena, kultura-ondarearen babesa eta naturguneak baldintzatzen dituzten faktoreak zeintzuk diren eta antolamenduak zeintzuk errespetatu behar dituen jakiteko. Informazio hori emateko, bi hilabeteko epea egongo da, eta justifikazio tekniko eta juridikoarekin batera emango da.”*

Bestalde, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 108. artikulua honako hau ezartzen du:

“Egiturazko antolamenduaren plangintzako figura oro egiten, aldatzen edo berrikusten hasteko udal-erabakiarekin batera, herritarrek parte hartzeko programa finkatu beharko da. Programa hori udalerraren ezaugarrietan oinarrituko da, eta herritarrek eta elkarteek planaren taxuketan behar bezala parte har dezaten bermatzeko beharrezkoak diren helburuak, estrategiak eta mekanismoak jasoko ditu. Mekanismo horien artean honako hauek egongo dira:

- a) Jendaurreko bilkurak. Aurrerakinaren edukia azaltzeko egingo dira, batez ere hiria eraikitzeko erabaki estrategikoak eta erabaki horiei buruz espedientearen tramitazioan aurkeztutako alternatibak azaltzeko.
- b) Udal barruko herri-kontsulta. Planean sartutako konturen bati buruz herritarren artean eztabaida larriak daudenean egingo da, toki-araubideari buruzko oinarrizko legerian finkatutako prozedurari jarraituta.
- c) Zabalkunderako materiala. Hirigintza-tresnetarako legez eskatutako agiriekin batera prestatu beharko da, agiri horiek jendeak errazago ezagutu eta ulertu ditzan.

Ildo beretik, martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuaren 3. artikulua 1. atalean ezartzen du Planaren berrikuspena formulatzeko erabakiarekin batera parte hartzeko programa bat aurkeztu beharko dela. Plan horretan, behar adina helburu, estrategia eta mekanismo ezarriko dira, herritarrek eta elkarteek parte hartzeko duten eskubidea izan dezaten.



Usurbilgo Udala

Herritarrek parte hartzeko programa hori **Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian edo dagokion lurralde historikoko aldizkarian argitaratuko da labor-labor**, informazioaren teknologia berrietan zabalduko da eta, gutxienez, parte hartzeko mekanismo hauek izango ditu:

- a) *Parte hartzeko gida bat, herritarrek parte hartzeko prozesuaren jarraibideak eta edukiak ez ezik, xehetasunak ere deskribatuko dituena; horretaz gain, parte hartzeko abiapuntu gisa erabiliko diren edukien laborpena bilduko da gida horretan.*
- b) *Jendurreko bilkurak, non azalduko baitira ekimenaren edukia eta espedientea izapidetzean aurkeztutako alternatiba posibleak.*
- c) *Dibulgazio-materiala: legediak eskatutako dokumentuekin batera prestatu beharko da, dokumentu horiek hedatzen eta ulertzen laguntzeko.*

Matia Fundazioa denbora darama iraupen luzeko zainketen inguruan hausnartzen, pertsonen nahiekin bat datorren eta aldi berean denboran jasangarria den zaintza eredu baten definizioan.

Eredua zehazteko galdeketa guztietan %90ek aipatzen dute, zaintza behar izanda ere, etxean bizi nahi dutela. Matiak, ondorio argia atera du: zaintza etxeetan era egokian eman behar da, eta hori ezinezkoa denean, zaintza, ahal den neurrian, etxean bezala izan behar du. Eta eredu horri erantzungo dion zaintza jarriko du martxan Matiak Usurbilen eraikitzen ari den auzunearen bidez.

Proiektu berritzailea eta aitzindaria da Euskal Herrian, bai alderdi sozialetik **bai hirigintza arlotik**, izan ere, Matiak adineko pertsonen zuzendutako arreta-eredu berri bat praktikan jarriko du, halabeharrez hara joan behar izan duen pertsona etxean bezala senti dadin lortzeko.

Proiektu horren harira, hitzarmen sozial bat hasi dira lantzen Matia eta Udala. Eta bi erakunde aldetik badago nahia, borondatea eta konpromisoa, auzune horrez harago, Usurbilen zaintzen ekosistema berri baterako urratsak ematen hasteko, pertsona ardatz duen arreta-ereduaren eta zainketen ikuspegi komunitarioaren ikuspegiak barnebilduko dituen eredu diseinatu eta herri zaintzailearen ideia, balioak, kultura... lantzen hastearekin batera.

Ekosistema horren eraikuntza kolektiboa bat izan behar zela kontuan harturik eta erakundeak, sektoreak eta komunitateak elkarrekin eraikitakoa izan behar zuela, erabaki zen parte-hartze prozesu bati ekitea, eta ekipamendua handitzea proiektu soziala gauzatzearekin lotuta dago.

Parte hartze prozesua honetan datza:

1. Bilerak herrietan zaintza-zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresekin, zaintzaile profesionalekin, etxeetan zaintza-lanetan



Usurbilgo Udala

aritzen diren langileekin (gehienak migratzaileak), familiarrak (menpekotasunen bat duten senideen zaintzaileak), komunitatea edo elkartegintza eta erakundeetako ordezkariekin (Osakidetza eta GFA, kasu).

2. Hirigintza-dokumentua gizarte proiektua bultzatzeko sortu den taldeari aurkeztea. Talde eragilean parte hartzen dute honako hauek: erakundeetako ordezkariak (Osakidetza eta GFA + Adinberri), zaintza sektoreko ordezkariak (izan langile profesionalak, izan etxeetan lanean ari diren pertsona migratzaileak); enpresetako ordezkariak; senideak (zaintza beharrea senideren bat duten pertsonak, gure Gizarte Zerbitzuetako erabiltzaileak), herriko elkartetako ordezkariak (komunitatea), mugimendu feministako kidea, zaintza beharra duten herritarrak eta udal ordezkariak, bai teknikariak bai hautetsiok.
3. Hirigintza-agiria herritarren eskura egongo da Usurbilgo Udaleko bulegoetan, eta ulertzeko behar den informazioa emango da.

Azaldutako guztiagatik, **Udalaren Osoko Bilkurari** honako erabaki hau hartzea proposatzen zaio:

Lehenengoa.- A-96 (Portalmusu) eta A-97 (Komentua) eremuetako Usurbilgo Arau Subsidiarioen aldaketa puntualari buruzko espedientea **hastea**.

Bigarrena.- Aldaketa puntualaren prozesuko herritarrek parte hartzeko programa **onartzea**. Programak honako eduki hau izango du:

- 1.- Bilerak herrietan zaintza-zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresekin, zaintzaile profesionalekin, etxeetan zaintza-lanetan aritzen diren langileekin (gehienak migratzaileak), familiarrak (menpekotasunen bat duten senideen zaintzaileak), komunitatea edo elkartegintza eta erakundeetako ordezkariekin (Osakidetza eta GFA, kasu).
- 2.- Hirigintza-dokumentua gizarte proiektua bultzatzeko sortu den taldeari aurkeztea. Talde eragilean parte hartzen dute honako hauek: erakundeetako ordezkariak (Osakidetza eta GFA + Adinberri), zaintza sektoreko ordezkariak (izan langile profesionalak, izan etxeetan lanean ari diren pertsona migratzaileak); enpresetako ordezkariak; senideak (zaintza beharrea senideren bat duten pertsonak, gure Gizarte Zerbitzuetako erabiltzaileak), herriko elkartetako ordezkariak (komunitatea), mugimendu feministako kidea, zaintza beharra duten herritarrak eta udal ordezkariak, bai teknikariak bai hautetsiok.
- 3.- Hirigintza-agiria herritarren eskura egongo da Usurbilgo Udaleko bulegoetan, eta ulertzeko behar den informazioa emango da.

Hirugarrena.- **GAOn argitaratzea** "Usurbilgo A-96 (Portalmusu) eta A-97



Usurbilgo Udala

(Komentua) eremuetako Plangintzako Arau Subsidiarioen Aldaketa puntualaren Herritarren Partaidetzarako Programa, eta informazioaren teknologia berrien bidez zabaltzea.

Laugarrena.- Informazioa eskatzea babes zibilean, ingurumenean, kultura-ondarean eta natura-ingurunean eskumena duten Eusko Jaurlaritzako eta Foru Aldundiko sailei, dauden arriskuei buruz eta udalerrriaren antolamenduak errespetatu behar dituen ingurumen-baldintzatzaileei, kultura-ondarearen babesari eta natura-inguruneari buruz.

Bosgarrena.- Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiari **galdetzea** ea "*Usurbilgo A-96 (Portalmusu) eta A-97 (Komentua)*" eremuetako Arau Subsidiarioen aldaketak ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozedura bete behar duen eta, horrela bada ohikoa edo sinplifikatua izan behar duen.

Donostian, 2021eko uztailaren 5ean.

Sin.- Nekane Azarola Martínez

Abokatua - ARAUDI S.L.P

TXOSTEN TEKNIKOA

Udal arkitektoak, Ekhiñe Egiguren Azkue andereak, eskaera aztertu ostean, 2021eko uztailaren 8an honako txostena eman du:

UA 2021_01_01

BULEGO TEKNIKOA

Udal Teknikariak Alkate jaunari

OBRA HAUNDIAK

**A-96 (PORTALMUSU) ETA A-97 (KOMENTUA) EREMUAN
ERAIKIGARRITASUN HAZKUNDERAKO ARAUEN ALDAKETA
ESKAERARI TXOSTENA**

KOKAPENA: A-96 PORTALMUSU eta A-97 KOMENTUA eremuak, Usurbil.

ESKAERA DATA: 2021eko ekainaren 30a.

ESKATZAILEA: MATIA SERVICIOS SOCIALES S.L.

ESPEDIENTE ZENBAKIA: HZ.01/2021-263

AURREKARIAK

- 2021eko ekainaren 30ean interesatuak eraikigarritasun hazkundera onar dadin Arauen Aldaketa izaipdetzea eskatu du.

Erlazionatuak: HZ.04/2019-358



Usurbilgo Udala

- 2021eko ekainaren 30ean interesatuak eraikigarritasun hazkundera onar dadin Arauen Aldaketa izapidetzea eskatu du.
- 2020ko urtarrilaren 28an TGB-k A-96 PORTALMUSU eta A-97 KOMENTUA eremuetan Berrikuntza gunea eta zainzadun etxebizitzak eraikitzeke obra baimena eman zuen.
- 2020ko azaroaren 25ean eta 2021eko otsailaren 15ean interesatuak eraikigarritasun hazkundera eskatu du.
- 2021eko otsailaren 22an udal teknikariek txostena eman dute.

TXOSTENA

Aurrekarietan azaldu bezala, MATIA SERVICIOS SOCIALES S.L.-ren izenean, Gerardo Ramon Amunarriz Perez jaunak eskaera egin du A-96 PORTALMUSU eta A-97 KOMENTUA eremuan, eraikigarritasun hazkunderako Usurbilgo Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioen aldaketa puntuala izapidetu dadin.

Aurkezu idatzian honakoa eskatzen da: *“SOLICITO, (...), se considere conveniente y justificada la propuesta de Modificación del vigente PGOU en el ámbito A96/97 MIRAVALLE para recoger en su Norma Particular la posibilidad de incrementar la edificabilidad en 1.700 m²/t (en semisótano y bajo cubierta) con la finalidad de mejorar la atención y prestar un mejor servicio a la ciudadanía de Usurbil y su comarca en el campo del alojamiento con cuidados”.*

Gaia aztertuta, honakoak esan daitezke:

- INTERES PUBLIKOAREN JUSTIFIKAZIOA: Interes publikoa ezinbestean bete beharko da. Gaiaren inguruan aholkulari juridikoaren txostena eskatzen da.
- AZALERA BERRIEK EGUNGO ERAIKUNTZA PROIEKTUAN IZAN DEZAKETEN ERAGINA: Eskatzen den eraikigarritasun hazkundera (1.700 m²(t) inguru) egungo eraikinaren handitze bezala egitea proposatzen da eta horretarako dagokion Arauen Aldaketa izapidetzea eskatzen. Horren inguruan honakoak ohartarazi beharra dago:
 - Aztertu beharko da gune berri horiek egikaritzeak egun baimenduta dagoen eraikuntzan izan dezaketen eragina indarrean dagoen araudia betetzen aldera (CTE, irisgarritasuna, sektorialak, e.a.) eta horretarako, indarrean dauden gainontzeko hirigintza parametroak ere aldaketarik eskatzen duten. Hau da, eragina bere osotasunean aztertu beharko da.
 - Ezinbestean bete beharko dira BABE aitormenak eta baita ingurumen organoak ezarritako baldintza akustikoak.
 - Eraikigarritasun hazkundera hori behin betiko onartuko duten Arauen Aldaketa onartzen bada, behin hura behin betiko onartuta



Usurbilgo Udala

eraikuntzaren Exekuzio Proiektua egokitu beharko da eta ondorioz, baita aurrez emandako eraikuntza baimena ere.

- Eraikigarritasun hazkunde hori behin betiko onartuko duten Arauen Aldaketa onartzen bada eta obra baimena egokitu, jarduera baimenak/aurretiazko komunikazioak (kasuan dagokionak) ere bere osotasunean hartu beharko ditu eraikina eta erabileran jarri nahi diren guneak.
- Gainontzean, 2021eko otsailaren 22ko txostenean esandakoak berresten dira.

Ondorioz, goian esandakoa oinarri, eskaerari ALDEKO txostena idazten zaio, beti ere aipatu baldintzak betetzen badira.

Hau da behean izenpetzen duen teknikariaren iritzia, hobe oinarritutako besteren kalterik gabe. Udalari jakinarazten zaiona, dagokion erabakia har dezan.

Usurbilen, 2021eko uztailaren 8an
HIRIGINTZA, OBRAK ETA INGURUMENA SAILEKO BURUA/ UDAL
ARKITEKTOA
Izta.: Ekhiñe Egiguren Azkune

Guzti hau ikusirik, Hirigintza Batzordeak, 2021eko uztailaren 8an egindako bilkuran, Agurtzane Solaberrieta, Lur Etxeberria eta Patxi Suárezen aldeko botoekin, aho batez, egindako irizpena kontutan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENENGOA: Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-96 (Portalmusu) eta A-97 (Komentua) eremuetako Usurbilgo Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioen aldaketa puntualari buruzko espedientea **hastea**.

BIGARRENA: Aldaketa puntualaren prozesuko herritarrek parte hartzeko programa **onartzea**. Programak honako eduki hau izango du:

1. Bilerak herrietan zaintza-zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresekin, zaintzaile profesionalekin, etxeetan zaintza-lanetan aritzen diren langileekin (gehienak migratzaileak), familiarrak (menpekotasunen bat duten senideen zaintzaileak), komunitatea edo elkartegintza eta erakundeetako ordezkariekin (Osakidetza eta GFA, kasu).
2. Hirigintza-dokumentua gizarte proiektua bultzatzeko sortu den taldeari aurkeztea. Talde eragilean parte hartzen dute honako hauek: erakundeetako ordezkariak (Osakidetza eta GFA + Adinberri), zaintza sektoreko ordezkariak (izan langile profesionalak, izan etxeetan lanean ari diren pertsona migratzaileak); enpresetako ordezkariak; senideak (zaintza beharrean senideren bat duten



Usurbilgo Udala

pertsonak, gure Gizarte Zerbitzuetako erabiltzaileak), herriko elkarteetako ordezkariak (komunitatea), mugimendu feministako kidea, zaintza beharra duten herritarrak eta udal ordezkariak, bai teknikariak bai hautetsiok.

3. Hirigintza-agiria herritarren eskura egongo da Usurbilgo Udaleko bulegoetan, eta ulertzeko behar den informazioa emango da.

HIRUGARRENA: GAOn argitaratzea "Usurbilgo Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-96 (Portalmusu) eta A-97 (Komentua) eremuetako Plangintzako Arau Subsidiarioen Aldaketa puntualaren Herritarren Partaidetzarako Programa, eta informazioaren teknologia berrien bidez zabaltzea.

LAUGARRENA: Informazioa eskatzea babes zibilean, ingurumenean, kultura-ondarean eta natura-ingurunean eskumena duten Eusko Jaurlaritzako eta Foru Aldundiko sailei, dauden arriskuei buruz eta udalerrriaren antolamenduak errespetatu behar dituen ingurumen-baldintzatzaileei, kultura-ondarearen babesari eta natura-inguruneari buruz.

BOSGARRENA: Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiari **galdetzea** ea "*Usurbilgo Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-96 (Portalmusu) eta A-97 (Komentua)*" eremuetako Arau Subsidiarioen aldaketak ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozedura bete behar duen eta, horrela bada ohikoa edo sinplifikatua izan behar duen."

Bozketa honela izan da:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Lur Etxeberria Gurrutxaga, Ainhoa Arrozpide Landa, Luken Arkarazo Silva, Oskar Santamaria Pikabea, Itziar Basterrika Unanue, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Carlos Pérez Fraisoli eta Francisco José (Patxi) Suárez Pérez.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

2.- UDAL TITULARTASUNEN HORNIDURA-SISTEMEN KONTROL ETA ZAINZA UNITATE BERRIARI LAGUNTZEKO JARDUERAK EGITEKO KUDEAKETA AGINDURAKO USURBILGO UDALA ETA AÑARBEKO UREN MANKOMUNITATEAREN ARTEKO HITZARMENA ONARTZEA.

Lur Etxeberriak azalpenak eman ditu, irizpeko aurrekarietan aipatzen direnak. Gaineratu du hitzarmen honek aldaketa handiegirik ez duela suposatzen, berrikuntza izango dela dio AUSAk auditoria bat egingo liokela Usurbilgo Udalari, eta hori positiboa dela uste dute. Zereginak eta betebeharrak berdinak izaten jarraituko dutela esan du eta elkarlan batean jarraituko luketela.

Josune Urkolak kontrol-zaintzari buruz egindako galderari erantzunez Lur Etxeberriak erantzun dio orain arte kontrola eta kudeaketa Añarbek gauzatu duela eta orain Usurbilgo



Usurbilgo Udala

Udalak egingo duena da beraien informazio eskaerari erantzunez dokumentazioa bidali, lehen ez zitzaiela ezer bidaltzen zehaztu du.

Josune Urkolak galdetu du ea papeleo kontua bakarrik den edo ardura kontua ere baden.

Lur Etxeberriak erantzun dio ardura kontua badela, zeren zerbait gertatuko balitz horren arduraduna Usurbilgo Udala izango litzateke.

Alkateak, hau nondik datorren argitzeko adierazi du Usurbil bezala Añarbeko kide diren beste herri batzuek ere beren urak dituztela eta guzti horien KZU-a Añarbek egiten zuela, Osasun sailak bere garaian ateratako dekretuan zehazten zuen bezala. Orain, ordea, Añarbek esaten duena da “zuek zuen ura baduzue, zuek zuen uraren ardura eduki”. Praktikan orain arteko funtzionamendua gutxi aldatuko litzatekeela dio, ze kontrol hori Añarbek egiten jarraituko luke, gainera hitzarmen honen arabera analitikak maiztasun gehiagorekin egingo lirateke.

Batzarkideek, Zerbitzuak eta obrak batzordearen irizpena aztertu dute eta gehiengo osoz onartu dute, honela dio:

“Esp. zk.: HZ.06/2021-0179

Aurrekariak

Usurbilgo udalerrian 2 ur hornidura sistema daude.

1. Añarbe. Titularra Añarbeko Mankomunitatea da.
2. Usurbil-Erroizpe. Titularra Usurbilgo Udala da.

Gaur gaurkoz, 2 ur hornidura sisteman Kontrol eta Zaintza Unitatea (KZU) Añarbeko Urak S.A. da.

Usurbillek -Erroizpe Ur hornidura sistemari dagokionez, Erroizpe hornidura sistemako Kontrol eta Kudeaketa Programa (KKP) izan badu eta bertan jasotzen dira nor diren plan horren arduradunak Udalean.

- Zerbitzuetako burua.
- Zerbitzuetako arduraduna.
- Iturgina.
- Ingurumen teknikaria.
- Udaltzaingoa (alertak).

2021eko maiatzaren 5ean Añarbeko Urak-ek Usurbilgo Udalean aurkeztu zuen Udaltzaren titulartasuneko hornidura-sisteman kontrol eta zaintza unitate berriari laguntzeko jarduerak egiteko kudeaketa agindurako hitzarmenari buruzko idatzia.



Usurbilgo Udala

Idatzi horri Usurbilgo Udalaren eta Mankomunitatearen artean kudeaketea agindua zehazteko hitzarmenaren ale bat lotu zitzaion. Honen bidez, Usurbilgo Udalak agintzen dio mankomunitateari (AUSAren bitartez) Usurbilgo hornidura sistemari dagozkion Kontrol eta Zaintza Unitateari (KZU) laguntzeko jarduketara materialak egitea.

Aipatu hitzarmena Mankomunitateak 2021eko maiatzaren 7an egindako bilkuran onartu zuen, eta orain Udalari dagokio hitzarmena onartzea.

Araudi aplikagarria

Aplikatu beharreko oinarrizko legeria honako hau da:

- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena.
- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena.
- 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa.

Kontuan harturik

Espedientean dauden Ingurumen eta Nekazaritza teknikariak eta Udal Idazkariak emandako txostenak.

Beraz, guzti hori ikusirik, Zerbitzuak eta Mantenua Batzordeak, 2021eko uztailaren 12an egindako bileran, gehiengoz, Lur Etxeberria, Agurtzane Solaberrieta eta Carlos Perezen aldeko botoekin, egindako irizpena kontutan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du gehiengo osoz:

ERABAKIA

Lehenengoa.- Usurbilgo Udalak Añarbeko Mankomunitateari (AUSAren bitartez) KZUari laguntzeko zehaztutako jarduera materialak egiteko kudeaketa mandatua ezartzea, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 legearen 11. artikulua babesean, eta onartuko den hitzarmenaren testuaren baitan. Hitzarmen horretako laugarren estipulazioan zehazten dira egin beharreko jarduera materialak.

Bigarrena.- Ematen den kudeaketa-gomendioak ez dakar eskumenaren titulartasuna lagatzea, eta udal-organo eskudunen erantzukizuna izango da gomendioaren xede den jarduera material zehatzaren euskarri diren egintza edo ebazpen juridiko guztiak ematea.

Hirugarrena.- Kudeaketa mandatua 2022ko otsailaren 6an sartuko da indarrean, eta 8 urteko indarraldia izango du gehienez, betiere Usurbilgo Udalak bere hornidura sistema propioa ustiatu eta Mankomunitatearen parte izaten jarraitzen duen bitartean. Balizko luzapenak hitzarmenean bertan jasotzen diren baldintzetan bideratuko dira.

Laugarrena.- Akordio honetan txertatutako kudeaketa-gomendioaren hitzarmena onartzea, eta alkateari hitzarmena sinatu eta formalizatzeko behar diren egintza guztiak egiteko ahalmena ematea.

Bosgarrena.- Udalak Eusko Jaurlaritzari Usurbil-Erroizpe ur hornidura sistemaren Kontrol eta Zaintza Unitate gisa jarduteko eskaera bideratzea.



Usurbilgo Udala

Seigarrena.- Erabaki hau mankomunitateari jakinaraztea, hemen emandako agindua onar dezan.

Zazpigarrena: Kudeaketa gomendio hau formalizatzen duen hitzarmena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.”

Bozketa honela izan da:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Lur Etxeberria Gurrutxaga, Ainhoa Arrozpide Landa, Luken Arkarazo Silva, Oskar Santamaria Pikabea, Itziar Basterrika Unanue eta Francisco José (Patxi) Suárez Pérez.

Abstentzioa: Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu eta Carlos Pérez Fraisoli.

Beraz, erabakia gehiengo osoz hartu da.

Arratsaldeko 18:25 direnean, Oskar Santamaria Pikabea zinegotziak bilkura utzi du.

3.- IDAZKARI OROKOR LANPOSTUARI DEDIKAZIOA EZARTZEA ETA ONDORIOZ 2021EKO LANPOSTUEN ZERRENDA EGOKITZEA.

Puntu honetan Garazi Etxeberria San Miguelek ez du parte hartu, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko 40/2015 Legeko 23. artikulua bainan eta Olatz de Miguel Arnaiz izan da idazkaria.

Alkateak azaldu du idazkari orokor lanpostuari dedikazioa ezartzea gobernu taldetik proposatutako neurri bat dela. Gai honekin eta lan arloko beste gai batzuekin lotuta, negoziazio mahaia eratu dutela adierazi du eta, era berean, pertsonal batzordean landutako gai bat dela esan du. Proposamen hau konstestualizatzeko, bai batean zein bestean emandako azalpenak pleno honetan ere eman nahi dituela adierazi du.

Denek ikusi dutela esan du azken urteetan zer nolako gorabeherak izan dituzten idazkariarekin. Zehaztu du azken urteetan ez dela egon idazkaririk lau urte baino gehiago iraun duenik eta horrek udal baten eguneroko martxan arazoak sortzen dituela azpimarratu du. Aurreko legegaldian Garazi Etxeberriak, idazkari zegoela, gaikuntza nazionala ateratzeko urtebeteko baimena eskatu zuela esan du eta hor ikusi zutela dio zer nolako zailtasunak izan zituen Udalak idazkaria topatzeko, gaineratu du arazo hau ez dela udal honena bakarrik arazo orokorra dela. In extremis eta salbuespenez, Foru Aldundiak onartu zuen Irantzu Arrizabalaga Usurbilgo idazkari izatea. Idazkari poltsa gutxi zeudenez, Foru Aldundiak udal hau behartu zuela esan du idazkari hautaketa-prozesu bat egitera eta hor aukera bat ikusi zela esan du postu hori egonkortzeko. Baina tamalez azkenean ez zela aukera bihurtu esan du, izan ere prozesuan 80 pertsona inguruk izena eman zutela bai baina lehenengo ariketara 16 pertsona bakarrik etorri zirela eta lehen azterketa hori hiruk bakarrik gainditu zutela zehaztu du eta gainera prozesu osoa bi pertsonen bakarrik gainditu zutela. Bestalde,



Usurbilgo Udala

bazekiten horietako bat Hernaniko Udalean idazkari zegoela eta ez zela etorriko eta bestea zen orain gutxi arte programa bidez udal honetan egon den Jon Irusta.

Ikusten ari direla dio kontestu honetan administrazioan zer nolako ezegonkortasuna dagoen, ez Usurbilen bakarrik orohar administrazio guztietan. Langileen joan-etorria etengabea dela esan du.

Idazkariaren prozesuaren amaieran Garazi Etxeberria berriz ere gurera etortzeko aukera suertatu zela esan du eta horren berri izan zutenean udal gobernu honek aukera hori landu nahi izan zuen, aurrez Usurbilen egindako lanaren balorazioa oso ona zelako eta herria ezagutzen zuelako, besteak beste. Horretan ari zirela eta, beti ere, epe luze batetarako perspektiba batekin eta egonkortzeko asmoarekin, ikusten egon zirela dio Usurbilen tamaina berdineko herrietako idazkariak zein egoeratan zeuden eta ikusi zutela dio denak 28. mailan zeudela eta gurea 24. mailan zegoela. Era berean, alkateak berak ziurtatu dezakeela dio idazkari baten lana 24 orduko dedikazio bat dela, etxera lan asko eraman behar dela, gauza asko irakurri behar direla dio, eta ez dedikazioa dagokiona baino ordu gehiago sartzen dituelako baizik edozein momentutan alkatearen dei bati erantzuteko prest dagoela.

Bestalde, kontziente direla dio azken urteetan kronifikatzen ari den arazo bat daukatela langileekin, kasik arazo estruktural batean bihurtu dena, 6:30eko lan-jardunak ez duela ematen herri honek eta udal honek daukan lan zamari erantzuteko. Langile asko orduz gaindi dabiltzala esan du, hori kuantifikatu nahi izan dutela dio eta arazo horri jarraipena eman. Badakitela dio arazoa ez dela soilik idazkaritza postuan, arazoa orokorragoa da eta arazo orokorragoa denez arazoari, eta lanpostu guztietan ezin zaie soluzio eta irtenbide bat eman, bakoitzari egokitutako soluzioak topatu izan direla eta topatu beharko dituztela etorkizun hurbil batean gaineratu du.

Idazkariaren kasuan, planteatzen duten soluzioa da %15eko dedikazioa aplikatzea.

Olatz de Miguelek esan du hain zuzen ere idazkari ezberdin asko eduki izanak ere konfirmatzen duela ez dela idazkari baten arazo partikularra, baizik eta idazkari guztiekin errepikatzen den tonika orokorra dela, urtez urte errepikatzen dena.

Batzarkideek, Pertsonal batzordearen irizpena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:

“Esp.zk.: ID.06/2021-0107

2021eko Lanpostuen zerrenda 2020ko abenduaren 23ko udalbatzan onartu zen. Ondoren, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Usurbilgo Udaleko idazkari Ofokorraren postuak honako ezaugarri hauek ditu udalak onarturiko azken lanpostuen Zerrendaren arabera:

Saillkapen taldea: A1 (habilitazio nazionalakoa)
Lanpostu eta Ordainketa maila: 24
2020 urteko soldata gordina (24. maila): 56.126,86



Usurbilgo Udala

Berariazko osagarria: 27.441,60

Azken urteetan egoniko lege aldaketek lanpostuaren funtzioak hareagotu besterik ez ditu egin, bereziki gaikuntza nazionala duten toki-administrazioen funtzioanrioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren ondorioz. Honen ondorio bezala lanpostuari %15eko dedikazio bereziko berariazko osagarria ezartzea, erabateko baliagarritasuna modalitatean proposatzen da.

Antolakuntza, Pertsonala eta Kontratazio teknikariaren txostena kontutan harturik.

Gaia 2021eko ekainaren 24ko Negoziaketa Mahai Orokorrean landu da.

Lanpostuen zerrenda apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekretu Legegileak 126. eta hurrengoetan eta uztailaren 6ko Euskal Funtzio Publikoari Buruzko 6/1989 Legeak 13. artikulua eta hurrengoetan arautzen da. Dagokion iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da. Dena den, egintza administratiboa den heinean, argitaratzea informazioa emateko helburuarekin egiten da eta hortaz, indarrean egongo da, Udalbatzaren erabakitik.

Gaia 2020ko uztailaren 13an egindako Pertsonal Batzordean eztabaidatu ondoren gehiengoz onartua gelditu da, hurrengo bozkek eman direlarik:

- Aldeko botoak: Beñat Larrañaga, Agurtzane Solaberrieta, Patxi Suarez.
- Abstentzioak: Carlos Perez.

Beraz, hau guztia kontutan harturik, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENENGO: Usurbilgo Udaleko Idazkari Orokor lanpostuari %15eko dedikazio bereziko berariazko osagarria ezartzea, erabateko baliagarritasuna modalitatean.

BIGARREN: Erabaki honi erantsita doan Usurbilgo Udaleko 2021ko Lanpostuen Zerrendaren aldaketari onespina ematea eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratzea.

HIRUGARRENA: Akordio honen berri langileen ordezkariari eta Kontuhartzaitza sailari ematea.”

Bozketa honela izan da:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Lur Etxeberria Gurrutxaga, Ainhoa Arrozpide Landa, Luken Arkarazo Silva, Itziar Basterrika Unanue, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Carlos Pérez Fraisoli eta Francisco José (Patxi) Suárez Pérez.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

4.- 2021. URTEKO SOLDATA IGOERA ONARTZEA.



Usurbilgo Udala

Alkateak azaldu du 2021eko aurrekontuetan jada igoera honi buruz hitz egin zutela eta bertan kontenplazten den igoera bat dela. Gaineratu du Espainiako Aurrekontu Legetik datorren igoera dela eta horri heldu diotela gehienezko igoera aplikatzeko. Bere kasuan, Eudelek ere gomendatutako igoera dela esan du.

Gai hau ere langileekin negoziazio mahaiari landu zutela jakinarazi du eta baita pertsonalgor batzordean ere.

Batzarkideek, Pertsonal batzordearen irizpena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:

“Esp.zk.: ID.06/2021-0118

Aurrekariak

2021 urteari dagokion langile publikoen soldata igoera dela eta, abenduaren 30eko 11/2020 Estatuko Aurrekontuen Legearen 18. artikulua zera dio:

“Dos. En el año 2021, las retribuciones del personal al servicio del sector público no podrán experimentar un incremento global superior al 0,9 por ciento respecto a las vigentes a 31 de diciembre de 2020, en términos de homogeneidad para los dos períodos de la comparación, tanto por lo que respecta a efectivos de personal como a la antigüedad del mismo. Los gastos de acción social no podrán incrementarse, en términos globales, respecto a los de 2020. A este respecto, se considera que los gastos en concepto de acción social son beneficios, complementos o mejoras distintos a las contraprestaciones por el trabajo realizado cuya finalidad es satisfacer determinadas necesidades consecuencia de circunstancias personales del citado personal al servicio del sector público.

(...)

Cuatro. La masa salarial del personal laboral, que podrá incrementarse en el porcentaje máximo previsto en el apartado Dos de este artículo, en términos de homogeneidad para los dos períodos objeto de comparación, está integrada por el conjunto de las retribuciones salariales y extrasalariales devengadas por dicho personal en el año anterior.”

Bere aldetik, 1/2021 legea, otsailaren 11koa, Euskal Autonomia Erkidegoko 2021. urteko Aurrekontu Orokorra onartzen dituenak, zera dio:

“19. artikulua Langileen ordainsariak.

- 1. Sektore publikoko langileen gastuei buruz eman daitezkeen oinarritzko xedapenak eragotzi gabe, 2021. urtean, lan-kontratadunak ez diren Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorreko, organismo autonomoetako, zuzenbide pribatuko ente publikoetako eta sektore publikoko partzuergoetako langileen urteko guztizko ordainsariekin ezin izango dute % 0,9tik gorako gehikuntza orokorrik izan 2020ko abenduaren 31n indarrean dauden ordainsarien aldean. Ordainsari horiek, betiere, homogeneotasunaren arabera kalkulatuko dira, erkaketaren bi aldietarako, bai langileen kopuruari eta antzintasunari dagokienez, bai lanaldi-araubideari dagokienez.”*



Usurbilgo Udala

Pertsonal eta Antolakuntza teknikariak txostena osatu du eta gaia 2021eko ekainaren 24ko Negoziaketa Mahai Orokorrean landu da.

Gaia 2021ko uztailaren 13an egindako Pertsonal Batzordean eztabaidatu ondoren irizpena gehiengo onartua gelditu da, hurrengo bozkak eman direlarik:

- Aldeko botoak: Beñat Larrañaga, Agurtzane Solaberrieta, Patxi Suarez eta Carlos Perez.

Beraz, hori dena ikusirik, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENENGOA: Usurbilgo Udaleko langileen lansariak %0,9a igotzea onartzea, 2021eko urtarrilarn 1eko ondorioekin, beti ere 2020ko abenduaren 31ean indarrean zeuden lansariei buruz, eta alderatzen diren bi aldien artean homogeneotasuna bermatze aldera, bai langilegoa osatzen dutenen kopuruari dagokionez nola baita langile horien antzintasun sarien kopuruari dagokionez ere. Guzti hori estatuko 2021eko Aurrekontu orokorreari buruzko abenduaren 30eko 11/2020 legean jasotako ahalbidearekin bat etorriz.

BIGARREN: Akordio honen berri langileen ordezkariari eta Kontuhartzaitza sailari ematea.”

Bozketa honela izan da:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Lur Etxeberria Gurrutxaga, Ainhoa Arrozpide Landa, Luken Arkarazo Silva, Itziar Basterrika Unanue, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Carlos Pérez Fraisoli eta Francisco José (Patxi) Suárez Pérez.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

5.- ALKATETZAKO DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2021EKO EKAINAREN 22TIK UZTAILAREN 9RA (2021/545-2021/612).

Alkatetzak 2021eko ekainaren 22tik uztailaren 9ra bitartean (2021/545-2021/612) egindako dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.

6.- 2021/596 DEKRETUAREN BERRI EMATEA.

Batzarkideei 2021/596 dekretuaren berri eman zaie eta hauek jakinaren gainean geratu dira.

Alkateak gogoeta bat egin nahi izan du. Ez dela aldaketa soila esan du, beti esan izan dutela dio beraientzako parekidetasuna edo feminismoa edo aniztasuna balio transbertsalak izan



Usurbilgo Udala

behar dutela, udal jardun osotik heldu behar diotela gai horiei eta gai horiek alkatetzatik kokatzeak ematen die beste pisu bat, beste zentralitate bat udal politikan eta udal jardunean.

7.- 2021/602 ETA 2021/614 DEKRETUEN BERRI EMATEA.

Batzarkideei 2021/602 eta 2021/614 dekretuen berri eman zaie eta hauek jakinaren gainean geratu dira.

8.- 2021EKO AURREKONTUAREN EXEKUZIOAREN BERRI EMATEA.

Xabier Olano kontuhartzaileak esan du bai Aurrekontuen Foru Arauak bai Usurbilgo Aurrekontuaren Exekuzioaren Udal Arauak, biak zehazten dutela hiruhilabete behin udalbatzari aurrekontuen exekuzioaren berri eman behar zaiola. Horretarako, hiruhilabetea bukatu eta ondorengo 25 egunak jartzen dituela dio Diputaziora informazioa bidaltzeko, ondoren pleno batean berri emateko. Zehaztu du oraingoan uztailaren 14ean bidali zutela informazioa Diputaziora.

Aurrekontuaren exekuzioa nola doan banatu den laukian ikus dezaketela esan du. Bi erreferentzia hartzen direla esan du, haseran onartu zen aurrekontua eta gero aurrekontu kontsolidatua edo txertaketaren ondoren geratzen dena. Usurbilgo Udalaren haserako aurrekontua 12,8 milioi dela dio, baina txertaketak eginda hori bihurtzen da 15,6 milioi.

Sarreretan, jada onartu diren eskubideak 8,8 milioi direla esan du eta hori haserako oinarriarekin konparatuz gero %69 exekutatu da, baina gero txertatu diren inbertsioak eta kredituak kontutan hartuz gero, exekuzioa %57an egongo litzatekeela zehaztu du. Beraz, kontuhartzailearen iritziz oso ondo.

Gastuetan, jada onartutako ordaindu beharrak edo obligazioak 5,5 milioi izango liratekeela esan du, hasierako aurrekontutik erdira hurbilduko litzatekeela dio, %43a eta, aldiz, kredituak txertatuta, %36an geratzen dela zehaztu du.

Diferentzia horrek batez ere esplikazio bat daukala esan du, Fondo Forala behin Diputazioak onartu eta argitaratzen duenean, Udalak urte osokoa errekonozitzen du eskubide bezala, nahiz eta gero jasotzen doazen hiruhileka.

Momentuz, ondo doazela esan du, bai sarreretan eta baita gastuetan ere, baina oraindik oso garaiz dela esan du urte bukaeran nola iritsiko diren aurreikusteko, batez ere, tartean mugarri oso garrantzitsuak daudelako, tartean Txirikordako esleipena.

Batzarkideei 2021eko Aurrekontuaren exekuzioaren berri eman zaie eta hauek jakinaren gainean geratu dira.

9.- 2020KO KONTU OROKORRA ONARTZEA.



Usurbilgo Udala

Batzarkideek, Ogasun batzordearen irizpena aztertu dute eta gehiengoz onartu dute, honela dio:

“Behin 2020ko ekitaldia amaiturik, Aurrekontuaren exekuzioa eta Likidazioa onartu zuen Usurbilgo Udalak, 2021ko martxoaren 24an Alkatetzak emandako Dekretuaren bidez. Eta Dekretu horren berri eman zitzaion Udal Batza Osoari. Gainera, 2021ko apirilaren 29an egindako ohiko osoko bilkuran, 2020ko ekitaldiko komunikazioaren berri eman zitzaion batzarkide guztiei.

Jarraian, 2020 ekitaldiko Kontu Orokorra osatu zen, eta indarrean dagoen araudiari jarraituz, Kontuen Batzorde Bereziaren oniritzia jaso zuen 2021ko maiatzaren 25ean. Ondoren, 15 lanegunez jendaurrean egon da, ekainaren 3an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zenetik. Erakusketa publikoaren epealdian inolako erreklamaziorik jaso ez denez, hasieran emandako aldeko iritzia behin betikoa bihurtu da eta Udal Batza Osoak onartu behar du Kontu Orokorra uztailaren 31 baino lehen.

Beraz, indarrean dagoen araudia jarraituz, udal honetako Kontuen Batzorde Bereziak bere oniritzia emanik, Udal Batza Osoari proposatu zaio 2020ko Kontu Orokorrari behin betiko onarpena ematea. Horren aldeko 3 bozka jaso dira (EH Bildu eta PSE) eta abstentzio bat (EAJ).

Irizpena kontutan hartuta, Udalbatzarrak gehiengoz onartu du 2020ko Kontu Orokorra.”

Bozketa honela izan da:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Lur Etxeberria Gurrutxaga, Ainhoa Arrozpide Landa, Luken Arkarazo Silva, Itziar Basterrika Unanue eta Francisco José (Patxi) Suárez Pérez.

Abstentzioa: Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu eta Carlos Pérez Fraisoli.

Beraz, erabakia gehiengoz hartu da.

10.- UDAL ORDEZKARITZA BESTE ORGANO ETA ERAKUNDEETAN: UEMA ETA EUSKAL FONDOA.

Batzarkideek, Antolakuntza batzordearen irizpena aztertu dute eta gehiengoz onartu dute, honela dio:

“Esp.zk.: ID.02/2019-0191

2021eko apirilaren 29ko Udalbatzarrean, Aroa Etxeburua Ugartemendiak zinegotzi karguari uko egin ziola jakinarazi zen.

2021eko maiatzaren 27ko Udalbatzarrean, EH Bilduren hauteskunde-zerrendako hurrengo hautagaia den Ainhoa Arrozpide Landak zinegotzi kargua hartu zuen.



Usurbilgo Udala

Aldaketa hauek kontutan hartuta, UEMAn eta Euskal Fondoan Usurbilgo Udalaren ordezkariak aldatu nahi dira.

2019/06/25eko Udalbatzarrean hartutako erabakia:

Erakundea	Ordezkariek	Ordezkoak
UEMA	Agurtzane Solaberrieta Oxkar Santamaria Luken Arkarazo Aroa Etxeburua	Beñat Larrañaga Lur Etxeberria Itziar Basterrika Joxe Mari Iribar
EUSKAL FONDOA	Aroa Etxeburua	Itziar Basterrika

Oraingo proposamena:

Erakundea	Ordezkariek	Ordezkoak
UEMA	Agurtzane Solaberrieta Oxkar Santamaria Luken Arkarazo Ainhoa Arrozpide	Beñat Larrañaga Lur Etxeberria Itziar Basterrika Joxe Mari Iribar
EUSKAL FONDOA	Itziar Basterrika	Agurtzane Solaberrieta

Guzti hau kontutan hartuta, Antolakuntza batzordeak, 2021eko uztailaren 13an egindako bilkuran, gehiengoz, Agurtzane Solaberrieta eta Beñat Larrañagaren aldeko botoarekin eta Josune Urkola eta Patxi Suárezen abstentzioarekin, egindako irizpena kontutan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du gehiengoz:

ERABAKIA

Lehenengoa: Usurbilgo Udalaren ordezkariak aldatzea UEMA eta Euskal Fondoa erakundeetan eta ordezkariak berria honako izatea:

Erakundea	Ordezkariek	Ordezkoak
UEMA	Agurtzane Solaberrieta Oxkar Santamaria Luken Arkarazo Ainhoa Arrozpide	Beñat Larrañaga Lur Etxeberria Itziar Basterrika Joxe Mari Iribar
EUSKAL FONDOA	Itziar Basterrika	Agurtzane Solaberrieta

Bigarrena: UEMA eta Euskal Fondoari erabaki honen berri ematea.

Hirugarrena: Eragindako zinegotziei erabaki honen berri ematea.”

Bozketa honela izan da:



Usurbilgo Udala

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Lur Etxeberria Gurrutxaga, Ainhoa Arrozpide Landa, Luken Arkarazo Silva eta Itziar Basterrika Unanue.

Abstentzioa: Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Carlos Pérez Fraisoli eta Francisco José (Patxi) Suárez Pérez.

Beraz, erabakia gehiengoz hartu da.

11.- IZFE ETA USURBILGO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA ONARTZEA (ZERBITZU INFORMATIKOA EMATEKOA).

Batzarkideek, Antolakuntza batzordearen irizpena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:

“Esp.zk.: ID.21/2021-0100

Gipuzkoako Foru Aldundiak informatika-zerbitzuak eskaini eta ematen dizkie lurralde historikoko udalei, tartean Usurbilgo Udalari, IZFE SAren bitartez.

Laguntza hori aurrera eramateko GFAk eta EUDEL elkarteak lankidetzarako esparru-hitzarmena sinatzen dute eta hitzarmen hori oinarri hartuta sinatzen dira gero udal edo toki-erakunde bakoitzaren eta IZFE SAren arteko berariazko hitzarmenak.

2002. urtean sinatu zen lankidetzarako esparru hitzarmen hori duela gutxi berriro egin da. Ia bi hamarkada igaro ondoren, beharrezkoa ikusi baita lankidetzaren zenbait alderdi berritzea eta tresna juridikoak egokitzea, horietan islatzen baita gaur egun indarrean dagoen araudia.

Ondorioz, orain, IZFE SAren eta Usurbilgo Udalaren arteko lankidetzeta-hitzarmena sinatu behar da.

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 48. artikulua aukera ematen die administrazio publikoei zuzenbide pribatuko subjektuekin hitzarmenak sinatzeko, bakoitzak bere eskumenen esparruan, helburu komun bat lortzeko, baldin eta, besteak beste, kudeaketa publikoaren eraginkortasuna hobetzeko, bitarteko eta zerbitzu publikoen baterako erabilera errazteko eta onura publikoko jarduerak egiten laguntzeko balio badu.

Hitzarmenaren xedea lehen klausulan aipatzen da: IZFE SA sozietateak Usurbilgo Udalari egingo dizkion informatika-zerbitzuak zehaztea du helburu. Halaber, zerbitzuok egiteko era eta baldintzak zehaztuko dira.

Hitzarmen honek lau urteko iraupena du 2021eko urtarrilaren 1etik hasita eta beste lau urtez luzagarria izango da.

Hitzarmenak honako eranskin hauek ere jasotzen ditu:

- I Eranskina: Zerbitzuen xehetasuna.



Usurbilgo Udala

- II Eranskina: Finantzaketa eta gastu-banaketa.
- II Eranskinaren gehigarria: IZFE-Udalak landidetza informatikoko proiektuaren oinarritzko izaera zerbitzuen 2021eko derrama.

Hau guztia kontutan hartuta, Antolakuntza batzordeak, 2021eko uztailaren 13an egindako bilkuran, aho batez, Agurtzane Solaberrieta, Beñat Larrañaga, Josune Urkola eta Patxi Suárezen aldeko botoekin, egindako irizpena kontutan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENA: IZFE SA eta Usurbilgo Udalaren arteko lankidetzaz hitzarmena onartzea, informatika-zerbitzuak ematea helburu duena.

BIGARRENA: Alkatea ahalmentzea Usurbilgo Udalaren izenean lankidetzaz hitzarmena sinatzeko.

HIRUGARRENA: Usurbilgo Udalak urtero, aurrekontu partidan hitzarmen honi aurre egiteko adinako dirua jartzeko konpromisoa hartzen du.

LAUGARRENA: Erabaki hauek Kontuhartzaileari eta IZFE SAri jakinaraztea.”

Bozketa honela izan da:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Lur Etxeberria Gurrutxaga, Ainhoa Arrozpide Landa, Luken Arkarazo Silva, Itziar Basterrika Unanue, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Carlos Pérez Fraisoli eta Francisco José (Patxi) Suárez Pérez.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

12.- HILOBIEN GAINKO ESKUBIDEAK ESLEITU AHAL IZATEKO LOTE BERRI BATEN ESKAINTZAREN ESLEIPENA (11. LOTEA).

Lur Etxeberriak adierazi du 11. lote honen iragarkia argitaratu zela eta 13 eskaera jaso zirela, zehaztu du 27 hilobi atera zirela emakidan.

Jarraian, irizpenean aipatzen diren puntuak azaldu ditu.

Josune Urkolak egindako galderari erantzunez adierazi da hitzarmena sinatzen dutenean berehala itzultzen dela fidantza eta gero diru bat ipini beharko dutela emakidagatik. Bestalde, emakida 50 urtetarako dela zehaztu da.

Batzarkideek, Zerbitzuak eta obrak batzordearen irizpena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:

“Esp. zk.: HZ.06/2021-0042



Usurbilgo Udala

Aurrekariak

Udalbatza Plenoak 2021eko otsailaren 25ean egindako ohiko bilkuran, besteak beste, hilerriko hilobien gaineko eskubideak (11. lotea) emakida administratiboaren bidez esleitzeko betebeharreko Klausula Juridiko, Ekonomiko eta Administratibo Bereziak onartzea, lizitaziorako espedientea irekitzea eta eskabideak aurkezteko deialdia egitea erabaki zuen.

Deialdiaren iragarkia 2021eko apirilaren 12ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta 2021eko apirilaren 18ko euskal prentsan argitaratu zen hogeita hamar eguneko epea eman zelarik eskabideak aurkezteko.

Deialdi-epean, honako eskabideak aurkeztu ziren:

Erregistro zenbakia.	Interesduna	Hilobi kopurua
2021-1323	VICTOR MANUEL GONZALEZ PEREZ (72482404C)	3
2021-1440	YOLANDA GARCIA CLEMENTE (44160640L)	1
2021-1653	M LUZ ERRASTI ARRUTI (15910731K)	2
2021-1815	JOSE M. ZUBELDIA MAIZ (15934472A)	1
2021-1903	VICTORIANO FURUNDARENA BEGUIRIS-TAIN (15077513R)	6

Eskatzaile denak lizitazioan parte hartzeko beharrezkoa den dokumentazio guztia aurkeztu dute, beraz, ez da inor baztertu.

Bestetik, 11. Lote honetan hauek dira emakidan eskaintzen diren hilobiak:

- Sahatsa kalea, 5, eskuina, 3 (hilobi 1)
- Makala kalea, 2, ezkerre, 3 (hilobi 1)
- Altzifrea kalea, 5, eskuina, 3 (hilobi 1)
- Makala kalea, 4 (6 hilobiko panteoi osoa)
- Makala kalea, 6 (6 hilobiko panteoi osoa)
- Makala kalea, 8 (6 hilobiko panteoi osoa)
- Makala kalea, 1 (6 hilobiko panteoi osoa)

Esleipenak, panteoien kokapen ordena eta sarrera ordena jarraituz egingo dira.

Araudi aplikagarria

- Hilerri Berriaren Erregimen eta Funtzionamendua arautzen duen Arautegi Nagusia.
- Hilerri berriko hilobien gaineko eskubideak esleitzeko bete beharreko Baldintza Juridiko Ekonomiko eta Administratibo Bereziak. Jardunbide hau arautuko dutenak.
- Azaroaren 3ko 33/2003 Patrimonioaren Legea (93. artikulua eta jarraipenekoak).



Usurbilgo Udala

- 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentzauren transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora.
- Erregimen Lokaleko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea eta Erregimen Lokalari dagokionez, indarreko ebazpenen Testu Bateratua onesten duen apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekretu Legegilea, Sektore Publikoko Kontratu Legearen Testu Bateginaren aurka ez doan heinean.
- 1.955eko ekainaren 17ko Toki Korporazioetako Zerbitzuen Erregelamenduaren 114tik 137rainoko atalak, Sektore Publikoko Kontratu Legearen Testu Bateginaren aurka ez doan heinean.
- Izaera osagarritz, Zuzenbide Administratiboko gainontzeko arauak eta, hauek ezean, *Zuzenbide Pribatukoak izango dira indarrekoak*.
- Ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretua, Toki Erakundeen Ondasunei buruzko Araudia.

Beraz, guzti hori ikusirik, Zerbitzuak eta Mantenua Batzordeak, 2021eko uztailaren 12an egindako bileran, aho batez, Lur Etxeberria, Agurtzane Solaberrieta eta Carlos Perezen aldeko botoekin, egindako irizpena kontutan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENENGO: Udalak hilerrian eskainitako hilobien gaineko eskubideak azalean jasotako eran esleitzea, hau da:

- Sahatsa kalea, 5, eskuina, 3 (hilobi 1) JOSE M. ZUBELDIA MAIZ-i.
- Altzifrea kalea, 5, eskuina, 3 (hilobi 1) YOLANDA GARCIA CLEMENTE-ri.
- Makala kalea, 4 (6 hilobiko panteoi osoa) VICTORIANO FURUNDARENA BEGUIRISTAIN-ri.
- Makala kalea, 6, eskuina, 1-2-3 (3 hilobi) VICTOR MANUEL GONZALEZ PEREZ-i.
- Makala kalea, 6, ezkerre, 1-2 (2 hilobi) M LUZ ERRASTI ARRUTI-ri.

BIGARREN: Esleipena gauzatzeko, jarraian idatzitako Hitzarmen Administratiboaren eredu onartzea eta esleipendunarekin sinatu beharreko Hitzarmena prestatzeko agintzea.

HIRUGARREN: Alkateari, Udalaren izenean Hitzarmena sinatzeko ahalmena ematea.

LAUGARREN: Hitzarmena sinatu hala, esleipendunak ezarritako behin behineko fidantza bueltatzea.

BOSGARREN: Erabaki honen berri esleipendunari, udal lantaldeko arduradunari, lurperatzaileari eta kontu-hartzaileari ematea.

SEIGARREN: Esleipendunari, eguna eta ordua jartzea Hitzarmena sinatzera etor dadin.”



Usurbilgo Udala

Bozketa honela izan da:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Lur Etxeberria Gurrutxaga, Ainhoa Arrozpide Landa, Luken Arkarazo Silva, Itziar Basterrika Unanue, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Carlos Pérez Fraisoli eta Francisco José (Patxi) Suárez Pérez.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

13.- MOZIOA: AUTOBUS LINEA.

Alkateak mozio honen nondik norakoak azaldu ditu. Aurretik udal gobernuak mozio bat aurkeztu zuela esan du, baina azken egun edo orduetan hiru alderdiak adostasun bat lortzeko lanean aritu direla eta orain plenora ekarri duten testua adostu dutela.

Jarraian, alkateak mozioa irakurri du.

Patxi Suárezek hitza hartu du eta adierazi du ulertzen duela garraioaren egoera oso txarra bihurtu dela erabaki berri honekin. Bestalde, ulertzen du ere bai Foru Aldundiaren aldetik eta Udalaren aldetik borondate ona dagoela eta eskertzen dela dio bi alderdien prestutasuna eta horregatik mozioaren alde bozkatuko duela esan du.

Josune Urkolak adierazi du mozioa lehenengo aldiz jaso zutenean oraingo honen azken puntua zela eskatzen zutena. Hala ere, pentsatzen zuten mozioa bertan behera geratuko zela, mozio honetan eskatzen den linea hori uztailearen 1etik aurrera bertan behera utzi delako baina irailetik aurrera bermatuta dagoelako.

Bestalde, adostasun batera iritsi direla baina logoak falta direla esan du.

Alkateak erantzun dio akats tekniko bat izan dela logoarena, ezin iritsi dabilela, esan diela bai logoak sartuko zituela baina pasa egin zaiola aitortu dio.

Mozioa mantendu egin dutela esan du eta horren arrazoiak azaltzeko, hasteko, uztaile nola joan den kronika txiki bat egingo duela esan du. Batetik, adierazgarria dela dio emakida bat martxan sartzeko uztailearen 1ean aurrez ez Udalari, ez herritarrei adierazi gabe, desinformazio horrek ere kezka eragin dituela gaineratu du. Foru Aldundiarekin bilera berehala eskatu zutela esan du. Haserrea ez dela soilik Usurbilen izan, Buruntzaldea osoan orokortua izan dela esan du, murrizketak ez baitira soilik Usurbilen izan. Hau horrela, Foru Aldundia behartua sentitu dela dio bilera hori egitera eta eskertzen duela adierazi du.

Bileraren egun berean, arratsaldean herritarrekin bilera bat egin zutela esan du hauek jakin zezaten Foru Aldundiak bileran esan zuena.

Foru Aldundiak bilera horretan esan zuena izan zela dio, batetik, onartzen zuela hasiera ez zela egokia izan, desinformazio dextente izan dela. Linea horren izaera sozialagatik mahai gainean jarri zutela dio eta esan zutena izan zela dio "aztertuko da". Beraz, aztertuko dugu



Usurbilgo Udala

esatetik berriro martxan jarriko dela esatera alde handia dagoela uste du. Elkarlana beti dela ona esan du eta horrela jaso du mozioan, baina oraingoz asmo bat agertu dela zehaztu du.

Herritarrekin egindako bileran herritarrek eskatzen zuten ere gaia agendan egotea eta sinadura bilketarekin jarraitzeko asmoa zutela. Ia lau egunetan 900 sinadura bildu dituztela aipatu du. Eskatzen zutena zen ere Udalak bat egiten bazuen eskaerarekin mozioa Udalera ekartzea.

Itziar Basterrikak ere Zubietako egoera azaldu du, ez baidakite bertatik autobusak zein orдутan pasatzen diren. Aldaketak baldin badaude, gutxienez horiek jakinarazi egin behar direla uste du.

Alkateak beste ñabardura bat egin nahi izan du, hasiera batean Ospitaleetako linea ez zela kaxkotik hasten, Aginatik baizik adierazi du, eta herritarrekin egindako bileran gai hau atera zela esan du. Linea hori kentzeko arrazoia erabiltzaile gutxi izatea eta irizpide ekonomizistak izan zirela esan du, hala adierazi zuelako bere garaian Marisol Garmendiak, eta harrituko liokeela dio, berrezarriko balitz, Aginatik hastea. Elkarlan horren barruan, linea berrezarriko balitz prest daudela dio Aginatik Usurbilera taxi-busa jartzeko gero erabiltzaileek ospitaleetako linea hartu ahal izateko Usurbilen.

Josune Urkolak esan du lehen esan duenean uztailaren 1ean zerbitzu hau geratu egin dela, alkateak esan omen dio ez dela horrela. Josune Urkolak galdetzen du ea linea geratu den.

Alkateak erantzun dio gaizki ulertuko ziola, Josunek esan duen bezala linea uztailaren 1ean bertan behera geratu zela erantzun dio. Josunek esan duela dio irailaren 1ean berrezarriko dela baina hori ez dakitela dio. Komunikabideetan agian hori adierazi dutela dio baina Usurbilgo Udalean ez dutela horren berririk jaso adierazi du.

Batzarkideek, Antolakuntza batzordean landua izan zen gaia eta gerora adostutako testua aho batez onartu dute, honela dio:

“BURUNTZALDEKO AUTOBUS LINEATAKO EMAKIDAREN INGURUKO MOZIOA

Hilabete hasieran indarrean sartu den Buruntzaldeko autobusen emakida berriak murrizketa ugari ekarri ditu berarekin. Murrizketa hauek oso esanguratsuak izan dira eta hainbat herritan izan dute eragina.

Usurbilen kasuan, ezer baino lehen azpimarratu beharra dago betidanik izan dugula garraio publiko oso prekariora eta mugatua. Eskualdeko hainbat herrirekin lotura zuzenik ez dugu, eta indarrean dauden lineatan, autobus zein trenaren maiztasunak oso eskasak dira.

Buruntzaldeako autobus-zerbitzuaren emakida berria indarrean sartuz geroztik, gainera, egoerak nabarmen egin du okerrera. Buruntzaldeako herriekin lotzeko orain arte bi autobus linea genituen: Usurbil eta Hernani lotzen zituena eta Usurbil-ospitaleak lotzen zituena.



Usurbilgo Udala

Orain, ordea, linea bakarrarekin utzi gaitu Gipuzkoako Foru Aldundiak, hots, ezabatu egin dute Usurbil eta Ospitaleak zuzenean lotzen zituen linea. Hau da, zerbitzua %50ean murriztu diete Usurbilgo herritarrei.

Asko dira, erabaki honen ondorioz, udaletxera hurbildu diren herritarrak egoera hau salatu eta konpon dadin eskatuz. Horietako batzuk ospitaleko edo onkologikoko langileak dira. Beste batzuk, berriz, halabeharrez, ospitaleko zerbitzuren bat erabili beharra suertatu zaienak edo besterik gabe, ospitalera senitartekoren bat bisitatzen joan behar dutenak.

Ez genuke ahaztu nahi afera hau urrutitik datorrela. Emakida berri hau osatzeko prozesua aspaldi hasi zen, duela hiruzpalau urte, eta hasiera batean bi lineak kentzea proposatzen zuen Diputazioak. Asmo horrek usurbildarren eta Usurbilgo Udalaren haserrea eragin zituen: horren lekuko, oso egun gutxitan, 2.000 herritarrek alegazioak aurkeztu zituztela.

Entzungor egin die, ordea, Diputazioak usurbildarren eskakizunari, eta ospitaletako linea kendu dute. Eta gure ustez, ez da edozein linea. Linearen izaera soziala azpimarratu behar da. Izan ere, ospitaletan zerbitzu publiko bat eskaintzen den aldetik, hara iristeko irisgarritasun eta mugikortasun publikoa bermatu behar zaie herritar guztiei. Inor ez da gustuz joaten ospitalera, halabeharrez joan behar izaten dugu: lanera edota gaixoren bat zaintzera. Ondorioz, erabiltzaile asko eta asko emakumeak dira eta gizarte sektore ahulenei eragin die murrizketa honek.

Beraz, genero eta klase aldagaiek garrantzia berezia hartzen dute afera honetan.

Edozein kasutan, nabarmendu nahi dugu ikusi dugula Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasun eta Lurralde Antolaketako sailetik borondatea egoera birbideratzeko. Nahiz eta berandu iritsi, eskertzekoa da elkarlan-eskaintza. Pasa den astean egin bileran, departamenduak asmoa eta borondatea azaldu zuen usurbildarrei ospitaletarako lotura bermatu ahal izateko BU02 linea egokitzeko, irailetik aurrera. Irtenbideak bilatzeko eta egoera konpontzeko gure prestutasuna argia izango da.

Dena den, aurrez azaldutako guztia kontuan izanda, dagoeneko gure herrikideak murrizketak jasaten ari direla jakinda eta murrizketa hauen aurka udalean ia 900 sinadura erregistratu dituztela ikusita, Usurbilgo udalbatzak honako hau adierazi nahi du:

1. Bat egiten dugula herritarrek azaldutako kezka eta kexekin, eta ondorioz, gure esku dagoen guztia egingo dugula herritarren eskubideak bermatu daitezen.
2. Ospitaleak oinarritzko gizarte zerbitzu bat direla, eta ondorioz, edozein herritarrek bertara garraio publikoan iristeko eskubidea, funtsezko eskubide bat dela.
3. Horregatik, dei egiten diogu Gipuzkoako Foru Aldundiari, herritarren kexak aintzat hartu eta emakida berrian murriztutako T2-BU2 linea, lehengo baldintza berdinetan berrezar dezan, abiapuntua Usurbilen berrezarrit Lasarte-Orian beharrez.



Usurbilgo Udala

4. Udal ordezkarien eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren arteko lantalde bat eratzea eskatzen du, herritarrek azaldu dituzten keaxak eta zerbitzuaren gabeziei erantzuteko eta horiek konpontzeko.”

Bozketa honela izan da:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Lur Etxeberria Gurrutxaga, Ainhoa Arrozpide Landa, Luken Arkarazo Silva, Itziar Basterrika Unanue, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Carlos Pérez Fraisoli eta Francisco José (Patxi) Suárez Pérez.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

14.- GALDERA-ESKAERAK.

Alkateak Zapategiri buruzko azalpenak eman ditu, aurretik Hirigintza batzordean ere eman zituenak.

Covidak sortutako testuinguruaren ondorioz, eta ez udal gobernu honen kudeaketarengatik, Elkar-ek ez duela aurrera egingo bere egoitzarekin Usurbilen, Zapategiko proiektutik atera behar izan duela adierazi du. Jarraitu du esanez Covidak orohar zaildu egin duela testuinguru ekonomikoa, testuinguru sozio-ekonomikoa eta zaildu egin duela ere kulturaren eremua eta zer esanik ez liburugintza, ondorioz, Zapategi ez zen beste irtenbide bat topatzera behartuta sentitu dela Elkar. Hori ez duela alkateak berak bakarrik esaten, Elkar, Gureak eta Udalaren artean atera zituzten prentsa-ohar ezberdinetan irakurri daitekeela esan du.

Dudarik gabe, aurrekoan esan zuen bezala, Elkarren erabakia golpe gogorra izan zen Elkar berarentzako, Zapategin landu nahi zen proiektu sozialarentzako eta Usurbilgo herriarentzak eta Gipuzkoarentzat baita ere. Baina orduan esan zuen bezala, Elkarrek badaki horren gainetik eta hasieratik proiektu honetan konstante bat izan den hiru erakunde hauen arteko elkarlanak jarraitu du eta hiruren artean helburua izan da Gureak Usurbilen geratzea eta Zapategiren eremurako irtenbide bat topatzea. Azken asteotan horretan jardun direla hiru erakundeak eta irtenbide bat bilatu dela gaineratu du.

Eremu horren zati batean Gureak geratuko dela zehaztu du, gainera Gureakek ekainaren 28ko bere administrazio kontseiluan erabaki hau hartu zuela gaineratu du. Bestalde, bidelagun berri bat ere topatu dela esan du, Balfer izeneko enpresa. Balfer ez dela enpresa finalista bat esan du, inbertsore bat dela, sustatzaile bat. Hartuemanak hasi dituztela, hiru erakundeen artean bilera batzuk ere izan dituztela adierazi du. Eremuaren beste erdia garatzen denean, Balfer-i dagokiola esan du, honek ez dituela bere jarduerak hor kokatuko baizik eta Balfer izango dela dio eremu hori garatu edo sustatuko duen enpresa inbertsore bat.

Asmoa dela dio lau erakundeen (Gureak, Balfer, Michelin eta Udala) arteko hitzarmena irailera plenora ekartzea, hori izango baita oinarria arauen aldateten hasierako dokumentua prestatzeko. Lan kronograma asko estutu dutela dio, prozedura administratiboak eta



Usurbilgo Udala

urbanistikoak diren bezalakoak direla, beraz, horren arabera egingo dutela aurrera adierazi du.

Jarraitu du esanez Usurbilgo herriarentzat albiste on bat dela, albiste on bat dela jarduera ekonomiko berriak gure herrira ekartzea.

Gai honekin arantza bat duela esan du, Mirariri esan zion bezala gezurrak bide motza du. Esan ziela dio Elkarren erabakia ez zela udal gobernu honen kudeaketaren ondorioz eta hori iradoki nahi izan zuten. Mirariri rektifikatzeko eskatu ziola esan du, hori ez zela horrela, baina ez zuela rektifikatu. Denborak erakutsi duela dio benetan borondatea dagoenean eta dena jartzen denean, batzutan gauzak ateratzen dira beste batzuetan ez, kasu honetan berriro ere proiektu honetan gakoa elkarlana izan denean eta elkarlana izaten jarraitu du eta horregatik eta Udal honek uneoro malgutasunez jokatzen duelako ere ekimen pribatuekiko, kasu honetan orekatzen interes pribatuak eta herri mailako interesak, horren emaitza da hau, aurrera doazela.

Alkateak batzarraldia bukatutzat eman du arratsaldeko 19:20etan eta bilera agiri hau jaso da, alkateak izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.